



BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2025

Bilbao Observatorio

LABURPENA

Nahiz eta 2025aren hasiera Trumpen administrazioak ustekabez markatuta iritsi, egia da haren ekimenen inpaktua (kanpoko eta muga-zergen politikan) ez da aurreratutakoa bezain gogor sumatzen ari, ixten ari diren merkataritza-negoziazioen arabera; horietatik nabarmen dira AEBk Txinarekin¹ eta EB-27rekin² dituenak.

2025eko lehenengo sei hilekoa aurreikusi dena baino hobea izaten ari da

Izan ere, NDFren iritziz, egungo agertokia *"ziurgabetasun iraunkorraren erdian dagoen munduko ekonomiaren erresilientzia ahula da"*, eta horregatik 2025ean nahiz 2026an munduko hazkunde ekonomikoa hamarren bi eta bat hobetzea (+% 3,0 eta +% 3,1), apirileko iragarpenarekin alderatuta. Goranzko doikuntza txiki horren arrazoia da muga-zergen esparruaren aldaketa ez dela benetan zehaztu (uztailera arte, gutxienez), eta horren ziurgabetasunak inportazio-eragiketak aurreratzea eragingo zukeela (AEBtik), nazioarteko merkataritza-fluxua eta, ondorioz, hazkunde ekonomikoa erraztuta.

NDFk 2025eko eta 2026ko hazkunde ekonomikoa hobetu du eta % 3an finkatu da

2025era aplikatutako zuzenketa orokortua da, aurreikuspena % 2tik beherakoa izanik AEBn baina Eurogunea % 1ean finkatuta, Alemaniaren eta Italiaren hobekuntzari esker (hamarren bat; +% 0,1 eta +% 0,6 hurrenez hurren), Frantziaren eta Espainiaren doikuntza deusezaren aldean (+% 0,6 eta +% 2,5, hurrenez hurren). Azken horrek pronostikorik onena mantentzen jarraitzen du EB-27ko ekonomia handien artean.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenek (2025eko ekaina) eskuragarri dagoen informazioa erantsi dute, eta horrek aurreikusitakoa baino jardun ekonomiko hobea (lehenengo hiruhilekora arte) eta nazioarteko ziurgabetasuna uztartzen ditu. Nolanahi ere, azken horrek hasiera batean aurreratutakoa baino eragin txikiagoa eduki dezake, doi-doi sumatzeagatik. Modu horretan, EAEko ekonomiaren hazkundearen estimazioa % 2,1ean mantendu da 2025erako eta hamarren bat beheratu da 2026rako (+% 1,7), barneko eskariak bultzatuta eta kanpoko osagaiaren jardun pixka bat txarragoa lepoan.

Euskal ekonomia % 2,1 haziko da 2025ean

Uriko lan-merkatuaren lehenengo sei hilekoaren balantzea oso positiboa da, Gizarte Segurantzari 197.303 pertsona baitaude afiliatuta (ekaina), eta % 1,2ko hazkundea baitago urtetik urtera. Erregimen orokorrean afiliatzearen dinamismoaren emaitza da (+% 1,7). Autonomoen erregimenean (-% 0,5), etxeko enpleguan (-% 4,3) eta beste erregimen batzuetan (-% 7,7) erregistratutako atzerakada konpentsatzen du.

Ekainean, urian 197.303 afiliatu egon dira (+% 1,2 urte arteko tasan)

Hala ere, lehenengo sei hileko honetan urte arteko atzerakada azaldu da (-% 1,9 eta 1.049 kontratu gutxiago) uriko egoiliarren kontratu berrietan (54.295). Galera gizonezkoen kolektiboan kontzentratu da (-2.162 kontratu), bai eta 35 urte eta gehiagoko pertsonen artean (-1.430 kontratu), kontratazio mugagabeen (-4.205 kontratu) eta zerbitzuen sektorean (-1.216 kontratu) ere. Hortaz, urtea positiboki itxi ahal izateko, beharrezkoa da bigarren sei hilekoa nahikoa hobetzea, lehenengoaren emaitza negatiboa konpentsatzeko.

Egoiliarren kontratazio berria atzerapausoka (-% 1,9, urte arteko tasan, lehenengo sei hilekoan)

Ekainean, 20.443 langabetu erregistratu dira Bilbon, hau da, urte arteko jaitsiera % 2,6koa izan da (538 pertsona gutxiago), eta hori 2009az geroztik hilabete honetan erregistratutako langabezia-kopururik txikiena izan da (20.437). Jaitsiera-profila emakumeen (-% 1,7) eta gizonezkoen (-% 3,6) artean zabaldu da, adin-talde guztietan eta langabetuta daramaten denbora edozein dela ere, 2-3 urte daramatzaten pertsonen taldean salbu. Izan ere, horrek bakarrik egin gora (+% 4,6), prestaziorik kobratzen ez duten erregistratutako langabetuez gain (+% 0,4).

Erregistratutako langabezia-tasa jaitsi egin da (-% 2,6, urtetik urtera; 20.443 pertsona)

¹ Muga-zergen tregoa luzatzen jarraitzeko akordioa, abuztuaren 12an iraungiko zena (uztailak 29).

² % 15eko muga-zerga Estatu Batuetako merkatura bideratutako EB-27ko esportazio gehienetarako (uztailak 27).

Urteko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek diote Bilboko egoiliarren artean 190,8 mila pertsona daudela aktibo. Horietatik 177,9 mila lanean eta 12,9 mila lanik gabe. Modu horretan, zenbatetsi den enplegu-tasa % 56,5ekoa da eta langabezia-tasa % 6,8an geratu da.

Enplegu-tasa % 56,5ekoa da
eta langabezia-tasa % 6,8koa

Lehenengo hiruhilekoa positiboa izan da Bizkaiko merkataritzaren sektorerako, salmentak gehitu egin baitira urtetik urtera (+% 2,3 eta +% 0,4 prezio korranteetan eta konstanteetan), txikizkako segmentuaren bultzadak (+% 3,7 eta +% 2,2), handizkakoaren susperraldiak (+% 1,8 eta -% 0,5) eta ibilgailuen salmentan eta konponketetan jasandako moteltze txikiak (+% 0,7 eta -% 0,6) lagunduta. Bestalde, atzerakada txikia ikusi da sektoreko enpleguaren adierazlean: atzera egin du (-% 0,4) ondoz ondoko hamabost hiruhilekotan lehenengo aldiz.

Merkataritzako salmentak
handitu egin dira (+% 2,3
eta +% 0,4, prezio
korranteetan eta
konstanteetan)

Bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek indarra hartzea lortu dute (+% 5,9 eta +% 3,2, prezio korranteetan eta konstanteetan), eta lehenengo seiuhilekoaren balantzea oso positiboa izatea erraztu dute (+% 4,3 eta +% 1,6, prezio korranteetan eta konstanteetan). Bertan, elikagaiez besteko segmentuak funtsezko zeregina izan du (+% 4,5 eta +% 3,0, hurrenez hurren). Halaber, bigarren hiruhileko honetan, enpleguaren hobekuntza itzela nabarmendu behar da (+% 1,8), aurreko emaitzak indartu baititu.

Saltoki handietan
salmentak gehiagotu egin
dira (+% 4,3 eta +% 1,6,
prezio korranteetan eta
konstanteetan)

Bigarren hiruhilekoan 4.291 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian, eta lehenengo hiruhilekoko emaitza hobetu du (+% 26,4), partikularren (+% 26,1) eta enpresen eta bestelakoen (+% 27,0) segmentuak bultzatuta. "Emisio gutxiagoko ibilgailuak" deituriko programa (Eusko Jaurkitzailea) indarrean sartzeak inpaktua izan du, hilean 1.430 matrikulazio berri egon baitira batez beste, eta lehenengo hiruhilekoan, ordea, 1.132. Hala, lehenengo seiuhilekoan 7.686 ibilgailu berri matrikulatu dira; duela urtebete baino % 14,9 eta 995 ibilgailu gehiago, alegia.

7.868 ibilgailu berri
matrikulatu dira lehenengo
seihilekoan (+% 14,9, urte
arteko tasan)

Bilboko hotel-jarduerak bikain biribildu du lehenengo seiuhilekoa, urte arteko irabazia % 10etik gorakoa izan baita bidaiarientan eta ostatu-gauetan (+% 10,7 eta +% 10,5). Nazioarteko segmentuaren irabaziaz (+% 12,6 eta +% 12,2) Estatuko segmentuarena (+% 9,0 eta +% 8,6) gaitzen du, bidaiariei eta ostatu-gauetarako dagokienez; beraz, jardueraren erdia nazioarteko osagaiari zor zaio (bidaiarien % 50,1 eta ostatu-gauen % 54,8).

Igoera nabarmena
bidaiarien (+% 10,7) eta
ostatu-gauen (+% 10,5)
kopuruan.

Seiuhileko emaitza hori aintzat hartutako bi hotel-taldeetan errepikatzen da, nahiz eta hiru izar baino gutxiagoko hoteletan eta pentsioetan erregistratutako gaualdiak areago gehitu diren (+% 18,6). Ez hainbeste hiru izar eta gehiagoko taldekoak (+% 8,0), baina uriko hotel-jardueraren zati nagusia izaten jarraitzen du (ostatu-gauen % 74,7).

Loiuko aireportuak 1.984.896 pasaiari zenbatu ditu bigarren hiruhilekoan (+% 6,6, urte arteko tasan), eta duela urtebete baino 123.616 bidaiari gehiago izan dira. Modu horretan, lehenengo seiuhilekoaren balantzeak erakusten du bidaiari-bolumena % 4,3 handitu dela urtetik urtera (136.072 bidaiari gehiago), nazioarteko segmentuaren dinamismoari esker (+% 10,5). Estatukoaren portaera, aitzitik, laua izan da (+% 0,2).

...eta Loiun % 4,3 gora
(lehenengo seiuhilekoa)

Bestalde, Bilboko portuak 15.436,2 mila tona garraiatu ditu (urtarritik ekainera), hau da, urte arteko % 14,7ko atzerakada jasan du. Hileko narriadura-profila urteko lehenengo zatian azken zazpi urteetan izandako emaitzarik txarrenekin itxi da. AEBko muga-zeren politikaren inpaktua izan daiteke jaitsiera horren arrazoietakoa bat, eta horri portuko jardueraren merkatu giltzarrien narriadura gehitu behar zaio (petrolioarena, adibidez).

...baina atzerakada
gogorra eman da portuko
jardueran (-% 14,7,
lehenengo seiuhilekoan)

Bizkaiko industria-ekoizpena bigarren hiruhilekoan abiatu da (apirila-maiatza), urte arteko beste hobekuntza bat lortu du (+% 5,4). Horrela, lehenengo hiruhilekoan erregistratutakoa sendotu du (+% 5,7), eta 2024ko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean erregistratutako bilakaera negatibotik urrun. Susperraldi hori erauzketa-industriaren (+% 15,1) eta manufaktura-industriaren (+% 5,9) emaitzetan oinarritzen da, horiek uraren segmentuaren atzerakada (-% 12,9) konpentsatu baitute.

...industria-jardueraren susperraldiaren aldean (+% 5,4, apirila-maiatza)

Zerbitzuen sektoreak salmentak handituz zihoazkiola ekin zion 2025. urteari (+% 4,9 eta +% 3,4, prezio korronteetan eta konstanteetan), eta horiek orokortuak dira jarduera guztietan, baina besteetatik bereizten dira garraioan eta biltegiatzean (+% 9,0 eta +% 10,4) eta jardura profesionalean eta zientifiko-teknikoetan (+% 6,6 eta +% 4,6), sektoreko batez besteko balioa gaintitzen baitute. Sektoreko enplegua egonkortu egin da, eta gutxieneko irabazia izan du lehenengo hiruhilekoan (+% 0,1).

... eta zerbitzu-jardueraren salmentak gorantz zihoazen urte hasieran (+% 4,9 eta +% 3,4 prezio korronteetan eta konstanteetan)

Bizkaiko BPGd-a, 2025eko lehenengo hiruhilekoan, % 2,1 hazi zen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoaz geroztik jarraitutako hobekuntza-erritmoa finkatu zen. Orobat, elkarren ondoko hamasei hiruhilekotan hazkunde-tasa % 2aren gainetik egon da. Enpleguak hazten jarraitzen du (+% 1,7) eta 500.084 lanpostura iritsi da (LOB), 2024an (494.849) eta 2008an (494.403) erregistratutako kopuruen gainetik, biak gehieneko erreferentziak direla jakinik. Horrenbestez, ibilbide horri eutsiz gero, litekeena da 2025ean gehieneko historiko berri bat erdiestea.

2025eko lehenengo hiruhilekoan Bizkaiko ekonomia % 2,1 hazi zen

Miloi erdi lanpostu baino gehiago (LOB)

Bigarren hiruhilekoko aurrerapen-zifrek diote EAEko BPGd-a % 2,2 hazi dela urte arteko tasan, eta % 0,5 hiruhileko arteko tasan, eta, horrez gain, enplegua (LOB) % 1,4 gehituko dela urtetik urtera (13.000 lanpostu gehiago). Emaiza horiek Bizkairako erreferentzia argigarriak dira.

2025eko bigarren hiruhilekoan, EAEko BPGd-a % 2,2 hazi zen

Laburbilduz: 2025eko bigarren hiruhilekoaren amaieran eskuragarri dauden datuak, Bilbo eta Bizkaiari buruzkoak, Bizkaiko hazkunde ekonomikoaren pronostikoarekin (% 2 ingurukoa) bat etorriko den ekitaldia taxutzen ari dira jada. Oro har, ia jardura guztiak burutzen ari diren seiuhilekoaren balantzeek urte arteko hobekuntza nabarmena erakusten dute, zeinetan, batetik, zerbitzu-jardueren garrantzia berresten baita, eta, bestetik, eraikuntza-jarduerak eta, batez ere, industria-jarduerak ez dute erabat suspertzea lortu oraindik.

Lehenengo seiuhilekoko emaitzak oso positiboak dira ia jardura guztietan...

Balantze horrekin batera, enpleguaren emaitza oso positiboak datoz, eta horiek berretsi egiten dute uriko nahiz Lurraldeko ekoizpen- eta enpresa-sareak eskuragarri dauden lan-baliabideak xurgatzeko daukaten gaitasuna. Enplegu-bolumen horrek indartu egiten du kontsumoaren eta pertsonen nahiz familiek hazkunde ekonomikoan egiten duten inbertsioaren trakzio-osagaia, enpleguaren kaudimenarekin lotura handia baitute horiek biek.

...eta horren adierazlerik onena enplegua da, gehieneko historikoko balioetan finkatzen jarraitzen baitu.

Azken batean, badirudi Trumpen administrazioak merkataritza-estrategian sartutako ziurgabetasuna³ berandu zehaztu dela, eta, beraz, munduko merkataritza-fluxuetan duen inpaktua atzeratuta dagoela, gutxienez. Ondorioz, hazkunde ekonomikoa nolabait narriatuko zela aurreratu zen, eta badirudi, lehenengo seiuhilekoko balantzean behintzat, nolabaiteko "itxarote-konpasean" jarraitzen duela, baina, aldi berean, urte hasierako iragarpen txarrenak⁴ baztertzen ari direla.

... eta gero eta "arreta" gutxiago ezegonkortasun geopolitikoari...

³Beige Liburuak (uztailak 16) honako hau aipatu du: "jardueraren dezelerazio apalaren panorama eta inflazioa azeleratzeko arrisku potentziala...Trumpen merkataritza-politika definituta geratu eta prezioetan nahiz enpleguan duen eragina ebaluatu ahal izan arte".

⁴Ziurgabetasunaren eta aldakortasunaren gorakadari garrantzirik kendu gabe, urteko bigarren erdian merkataritza (mundukoa) eta hazkunde ekonomikoa moteltzea aurreikusita duen ibilbidearen arabera.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

"Ziurgabetasun iraunkorraren erdian dagoen munduko ekonomiaren erresilientzia ahula" planteatzen du Nazioarteko Diru Funtsak agertoki eguneratu gisa, Trumpen administrazioaren kanpoko politikaren aldaketa benetan zehazteko prozesuak sortutako itxarote-konpasaren arabera. Faktore horrek bat egiten du ezegonkortasun geopolitikoko testuinguru kronifikatu batekin (gerra-gatazkak) eta, zenbatespenen arabera, % 4,2koa den munduko inflazioarekin (eremu geografikoen arabera bereizita).

Munduko ekonomia % 3,0 haziko da 2025ean

Proiekzio berrien kalkuluei jarraiki, % 3,0 eta % 3,1 haziko da ekonomia 2025ean eta 2026an, eta % 0,2 eta % 0,1 doitu da apirileko pronostikoarekin alderatuta. Hobekuntza txiki horren arrazoia da, nagusiki, inportazioak aurreratzeak (muga-zergen igoeraren iragarpenaren aurkako babesak) eta finantza-baldintzak hobetzeak (AEBko dolarren ahultasuna) inpaktu positibo handiagoa dutela. Beraz, proiekzio berriek apirilean egindako doikuntzaren zati bat berreskuratu dute, baina ez dira iritsi urte hasierako itxaropenetara (urtarrila), eta, nolana ere, pandemiaren aurreko hamarkadan izandako batez besteko hazkundearen azpitik daude (+% 3,7).

Proiekzio berriek apirileko pronostikoa hobetu dute, baina ez urtarrilekoa

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) ...(e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	2025eko urtarrila		2025eko apirila		2025eko uztaila	
		2025	2026	2025	2026	2025	2026
MUNDUKO BPGd-a	3,3	3,3	3,3	2,8	3,0	3,0	3,1
Ekonomia aurreratuenak	1,8	1,9	1,8	1,4	1,5	1,5	1,6
Ameriketako Estatu Batuak	2,8	2,7	2,1	1,8	1,7	1,9	2,0
Eurogunea	0,9	1,0	1,4	0,8	1,2	1,0	1,2
Alemania	-0,2	0,3	1,1	0,0	0,9	0,1	0,9
Frantzia	1,1	0,8	1,1	0,6	1,0	0,6	1,0
Italia	0,7	0,7	0,9	0,4	0,8	0,5	0,8
Espainia	3,2	2,3	1,8	2,5	1,8	2,5	1,8
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,3	4,2	4,3	3,7	3,9	4,1	4,0
Txina	5,0	4,6	4,5	4,0	4,0	4,8	4,2
India	6,5	6,5	6,5	6,2	6,3	6,4	6,4
Brasil	3,4	2,2	2,2	2,0	2,0	2,3	2,1
Errusia	4,1	1,4	1,2	1,5	0,9	0,9	1,0

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Proiekzio berriak hamarren bat egin du gora ekonomia aurreratuen 2025. urteko hazkunde-aurreikuspenetan (+% 1,5). Horrela, hamarren bat hobetu da AEBren aurreikuspena (+% 1,9), baina urtarrilean aurreratutako % 2,7tik oso urrun, eta bi hamarren doitu ditu Eurogunean (+% 1), urtarrileko aurreikuspena berreskuratuta. Alemaniaren (+% 0,1) eta Italiaren (+% 0,5) hobekuntza txikiaren (hamarren bat) emaitza da, bai eta Frantziaren (+% 0,6) eta Espainiaren (+% 2,5) doikuntza deusezaren emaitza ere. Azken horrek mantentzen du jardun erlatiborik onena⁵ Europako ekonomia handien artean. Gainera, lau hamarren hobetu da ekonomia emergenteen eta garatzen ari direnen hazkunde ekonomikoa (+% 4,1), urtarrileko

Hobekuntza orokortua, ekonomia aurreratuentzat eta emergenteak eta garatzen ari direnentzat

⁵ Espainiako ekonomiaren hazkunde ekonomikoa % 2,8koa izan da (urte arteko tasan) urteko lehenengo eta bigarren hiruhilekoan (EIN).

aurreikuspena iritsi ez arren (+% 4,3). Nabarmenezkoa da Txinaren zortzi hamarreneko doikuntza, (ia % 5eko hazkunde), eta, aldi berean, ikaragarri beheratu da Errusiaren aurreikuspena (-6 hamarren), eta ez da % 1era iritsiko.

Uztailean egindako doikuntzaren zati handi batek oinarri du kasu bakoitzean aplikatutako muga-zergen inpaktua (negatiboagoa apirileko aurreikuspenetan gaur egungoetan baino). Erakundeak azpimarratu eta indartu egin du kanpoko merkataritzaren egonkortasunak hazkunde ekonomikoan duten garrantzia, eta, zehazki, honako hau aipatu du: *"herrialdeek merkataritza-esparru argiak eta gardenak sustatu behar dituzte politikek sortutako ziurgabetasuna murrizteko. Funtsezkoa da modu pragmatikoan lankidetzan aritzea baldin eta nazioarteko merkataritza-sistemaren arau batzuk, gaur egun eratuta dauden moduan, aurreikusitakoaren arabera funtzionatzen ari ez badira"*. Ohartarazpen orokorra da, eta aldebiko negoziazio-prozesuetan dauden herrialde guztiei aplika dakieke, baina, bitxia bada ere, ez dio berariaz erretarik ematen uneko ezegonkortasun-egoera alde bakarretik⁶ piztu duen eragileari.

Etheen konfiantza eta aurrezpena

	2024	2024			2025	
		II	III	IV	I	II
Etheen konfiantza¹ (± 100)						
EB-27	-12,9	-13,1	-12,0	-12,2	-13,5	-14,2
Espainia	-15,2	-14,5	-13,7	--	--	--
Etheen aurrezpena²; Δ urte artekoa %	4,2	4,2	3,4	4,2	4,7	5,5

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

1. Hileko datuen hiruhilekoko batez besteko datua eta hiruhilekoko datuen urteko batez besteko datua. 2024ko urritik aurrera, Eurostatek ez du argitaratu Espainiako daturik. Horrenbestez, 2024. urteko datua behin-behinekoa da, eskuragarri dauden hiru hiruhilekoko batezbestekoa.

2. Gordailuak. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierakoa eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

Europako etheen konfiantza⁷ ezkortasun arin baten barruan mantendu da (-14,2), aurreko hiruhilekoetan baino zertxobait txarragoa den ibilbide batean, baina lehenengo seiuhilekoaren balantzea (-13,8) 2024koaren antzekoa da (-13,6); hortaz, badirudi uneko ezegonkortasun geopolitikoak ez dituela konfiantza-jarrera horiek murriztu. Bakar-bakarrik aipatzekoa da konfiantza zertxobait negatiboagoa dela Eurogunean (-14,6 lehenengo seiuhilekoa), asko hedatu diren itxaropen zuhurren emaitza gisa⁸.

Etheen konfiantza mantendu egin da eta ez du txarrera jo

Etxeetako konfiantzaren nolabaiteko zuhurtasuna ez dator bat Europan⁹ eta, zehatz-mehatz, Espainian positibo samarra den lan-merkatuen egoerarekin, 2008az geroztik erregistratu ez ziren gehieneko enplegu-balioetan. Horregatik, errentaren erabilgarritasuna eta kautelazko aurrezpen posiblea direla kausa, ikusi da gordailuetako saldoaren bilakaerak¹⁰ posizioak indartzen jarraitzen duela urteko bigarren hiruhilekoan (+% 5,5), 1.050.425 milioi eurokoa izan baita ekainaren amaieran.

Gordailuetako (familiak) saldoa bilioi eurotik gorakoa da.

⁶Alde batera utzita muga-zergen aldebiko esparru baten negoziazio estandarrean lortu nahi diren helburuak.

⁷Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeko, kontuan hartzen dira etheen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketak handiak. Analisia EB-27ko datuarekin egin da, Eurostatek ez baitu Espainiako daturik argitaratu 2024ko urriaz geroztik.

⁸Lehenengo eta bigarren hiruhilekoko emaitzak Alemanian (-11,1 eta -9,4), Frantzia (-14,1 eta 16,0) eta Italian (-15,1 eta -17,1) edo Herbehereetan (-15,6 eta -17,1) emaitza horren azalbe dira, eta ezin dute Finlandiako (-8,5 eta -8,2) edo Suediako (-3,5 eta -10,5) itxaropen hobeek konpentsatu, kontsumitzaile guztiak "nolabaiteko ezkortasun" komun baten barruan daudelako.

⁹EB-27ko langabezia-tasa % 6,2an dago (2025eko lehenengo hiruhilekoa).

¹⁰Espainiako etxeetako Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuetako saldoa.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzak 2025erako dituen aurreikuspenak¹¹ % 2,1ean mantendu dira, baina hamarren bat jaitsi 2026rako (+% 1,7). Doikuntzaren argudio nagusia nazioarteko merkataritzaren esparruan sortutako ezegonkortasuna da, Ameriketako Estatu Batuetako muga-zergen politikari buruzko iragarkien ondorioz. Modu horretan, ziurgabetasun-osagai horrek berekin dakar kanpoko saldoaren ekarpen negatiborik handiena 2025ean eta 2026an.

Aurreikuspenak ez dira aldatu: euskal ekonomia % 2,1 haziko da 2025ean.

Biurtekoaren hazkunde ekonomikoak barneko eskarian izango du laguntza (+% 2,3 eta +% 1,9), eta horrek hasieran aurreikusitakoa (-% 0,2 eta -% 0,1) baino negatiboagoa izango den kanpoko saldoa konpentsatu beharko du (-% 0,3 eta -% 0,2). Kontsumoak eutsiko dio euskal ekonomiaren hazkunde ekonomikoaren ibilbideari (+% 2,4 eta +% 1,8), eta dinamismoa, hasierako aurreikuspenaren aldean, apur bat indartuko da, 2008an erregistratutako gehieneko historikoa gainditu duen enpleguaren ibilbidearekin bat etorriz. Alabaina, interes-tasak murriztu diren arren, badirudi ziurgabetasunak inbertsioaren ibilbidea baldintzatuko duela, zeren jaitsi egingo baita horren hazkundea, bi aurreikuspenen artean (-0,2pp eta -0,4pp, 2025ean eta 2026an, hurrenez hurren).

Jarduera-sektorearen arabera doikuntzak garrantzitsuak dira. Lehenengo sektorean ere aldatu da biurterako iragarri den patroia (+% 0,8 eta -% 0,1etik +% 0,4 eta +% 1,2ra), eta industrian (-% 0,2 eta -% 0,2) nahiz eraikuntzan (-0,6pp eta -0,4pp) jaitsi egin da eta zerbitzuen sektoreari (+0,2pp eta +0,1pp) esleitutako ibilbidea hobetu da.

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2025eko martxoa		2025eko ekaina		2025eko ekaina (hiruhilekoko banaketa)			
	2025	2026	2025	2026	25-I	25-II	25-III	25-IV
BPGd-a	2,1	1,8	2,1	1,7	1,9	2,1	2,1	2,0
Etxeetako kontsumoa	2,3	1,7	2,4	1,8	2,4	2,4	2,4	2,2
Kontsumo publikoa	2,0	1,7	2,0	1,7	1,9	2,1	2,0	2,0
Inbertsioa (KEG)	2,6	2,5	2,4	2,1	2,2	2,5	2,5	2,2
Barne eskariaren ekarpena	2,3	1,9	2,3	1,9	2,3	2,4	2,4	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,2	-0,1	-0,3	-0,2	-0,3	-0,3	-0,3	-0,2
Lehen sektorea	0,8	-0,1	0,4	1,2	2,4	-0,8	2,0	1,5
Industria eta energia	1,1	1,6	0,9	1,4	0,6	0,9	0,6	1,3
Eraikuntza	2,7	2,2	2,1	1,8	2,4	2,6	2,5	1,8
Zerbitzuak	2,3	1,7	2,5	1,8	2,3	2,6	2,5	2,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza (2025eko ekaina)

Aurreikuspen horiek EAEko termometro ekonomikoaren¹² emaitzekin bat datoz. 2025eko lehenengo seihilekoko batez besteko balioa 96,2 puntukoa da, 2024ko bigarren seihilekoan erregistratutakoaren antzekoa (96,7), zeinak lehenengo seihilekoko gaintu baitzuen (89,7 puntu). EAEko enpresek 2025eko hirugarren hiruhilekorako dituzten itxaropenek¹³ positiboak izaten jarraitzen dute (54,6 puntu), nazioarteko merkatuetan ziurgabetasuna erregistratu arren; horietan, izan ere, ez da begitatzten muga-zergen egoera¹⁴. Alabaina, aipatu beharra

¹¹ Zenbatespen horiek 2025eko ekainaren 10ean argitaratu ziren.


¹² Erreferentziatzeko unearen egoeraren adierazlea: hazkunde tinkoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundea (50etik behera).

¹³ EAEko kokatutako 404 enpresari egin zitzaizkien inkestak. Landa-lana 2025eko maiatzaren 5etik 12ra egin zen.

¹⁴ Trumpen Administrazioaren gorabeheren mende.


dago urteko batez besteko balioa 55,4 puntu dela, orain dela urtebetekoa baino hobea (47,7 puntu), eta adieraztekoa da nazioarteko faktoreak garrantzia duela, baina ez hainbeste edo ez inpaktu berarekin ekoizpen-ekosistema osoan, goranzko joera baita nagusi kasu horretan.

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresen itxaropenak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

Euskal etheen konfiantzak¹⁵ balio pixka bat negatiboetan jarraitu du (-6 puntu), azken zortzi hiruhilekoetan irrimo mantendutako profilean. Emaizta horretan eragina izan du ekonomia orokorraren (-21) eta etheko ekonomiaren (-8) martxaren inguruko ezkortasunak, prezioek gora egiteko itxaropenek baldintzatuta (-18), baina baikorrak dira enpleguaren martxaren inguruan eta aurrezteko gaitasunaren inguruan (+4, bi kasuetan).

Euskal etheen konfiantza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	II	III	IV	2025	I	II
Etheen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-4	-3	-4	-2	-4	-4	-6

Iturria: Euskal etheen konfiantza. Laboral Kutxa

¹⁵ Kontsulta EAEko 800 etxeri egin zitzaizen, 2025eko maiatzaren 13tik 25era.

Prezioak eta inflazioa

Ekainean berriro aktibatu da profil inflazionista: urte arteko gorakada % 2,3koa izan da Estatuan, eta % 2,8ra iritsi da EAEn nahiz Bizkaian. Hala ere, bigarren hiruhilekoan (apirila, maiatza eta ekaina) urteko inflazio-tasa txikieneko hiru hilabeteak daude barne, batez besteko balioak % 2,7 eta % 2,2 izanik, lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan, Espainian. EAEn (+% 3,2 eta +% 2,6) eta Bizkaian (+% 3,1 eta +% 2,6), hurrenez hurren, altuagoak dira, jarduera okerragoa izan da, eta prezioen hazkunde-erritmoa Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da.

Ekainak inflazio-
profila suspertu du
(zertxobait)

Oszilazio horiek alde batera utzita, badirudi KPI orokorraren hobekuntzaren ozttopoa azpiko osagaitik datorrela, Estatuan gelditu egiten baita (balioa errepikatzen du maiatzean eta ekainean, +% 2,2); EAEn, ordea, gora egiten du (+% 2,5 eta +% 2,7, maiatzean eta ekainean). EINen arabera, gorakada horretan duten eraginean nabariaren diren taldeak garraioa eta etxebizitza (erregaien eta gasaren prezioen urte arteko igoera arrazoï) eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak dira (batez ere, haragi- eta arrain-taldeetan).

KPIa Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI orokorra			Azpiko KPIa ¹	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2024	uztaila	2,8	2,9	3,1	2,8	2,9
	abuztua	2,3	2,6	2,9	2,7	3,0
	iraila	1,5	1,8	1,9	2,4	2,5
	urria	1,8	2,3	2,3	2,5	2,8
	azaroa	2,4	2,9	2,9	2,4	2,8
2025	abendua	2,8	3,6	3,6	2,6	3,3
	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4	2,9
	otsaila	3,0	3,3	3,1	2,2	2,4
	martxoa	2,3	2,8	2,7	2,0	2,5
	apirila	2,2	2,6	2,5	2,4	2,8
	maiatza	2,0	2,4	2,4	2,2	2,5
	ekaina	2,3	2,8	2,8	2,2	2,7

1. Landu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri.
Iturria: EIN

Maiatzeko emaitzek inflazioa jaisteko patroi orokorra dagoela berretsi dute, KPI bateratuaren urte arteko bilakaeraren arabera. Eurogunea % 2tik behera dago, ez ordea EB-27 osoa (+% 2,2), errealitate-aukera zabalaren emaitza: Frantzia prezioak eskasean hazi dira (+% 0,6) Alemaniaren, Espainiaren edo Herbehereen aldean, horiek antzera edo % 2tik gora baitaude. Azpiko inflazioa % 2,4koa izan da Eurogunean eta % 2,6koa EB-27n, eta % 3 inguruan kokatu da, berriz, Alemanian eta Herbehereetan.

Inflazio-prozesuaren moteltzea hor-hemen ikus daiteke, eta, beraz, martxotik maiatzera bitartean KPI bateratuaren urte arteko hazkundera dagoen aldea negatiboa da, eta, oro har, helburu diren atalaseetara hurbiltzen jarraitzen du. Testuinguru horrek justifikatu egin du EBZk¹⁶ diruaren prezioa berriz jaitsi izana (oinarrizko 25 puntu). Gauzak horrela, zortzi

¹⁶ Europako Banku Zentralaren bilera (2025eko ekainak 5) Diru-politikaren erabakiak.

beherakada jazo dira ondoz ondo, eta EBZk adierazi du "inflazio orokorra, batez beste, % 2,0koa izango dela 2025ean, % 1,6koa 2026an eta % 2,0koa 2027an. Beheranzko berrikuspenek, 2025erako eta 2026rako martxoko proiektzioekin konparatuta (ehuneko 0,3 puntu), energia-prezio baxuagoen aurreikuspenak eta euroaren balio-igoera islatzen dituzte gehienbat. Proiektzio horien arabera, inflazioa, energia eta elikagaiak kenduta, batez beste % 2,4koa izango da 2025ean, eta % 1,9koa 2026an nahiz 2027an, ia aldaketarik gabe martxoaz geroztik".

EB-27ko KPI harmonizatua eta Europako ekonomiak. 2025eko maiatza.


Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	urte arteko tasa		2025eko martxoaren gaineko aldea (ehuneko puntuak)	
	KPI Orokorra ¹	Azpiko KPIa ²	KPI orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	1,9	2,4	-0,3	-0,1
Alemania	2,1	2,9	-0,2	0,0
Frantzia	0,6	1,4	-0,3	-0,2
Espainia	2,0	2,2	-0,2	0,2
Italia	1,7	2,0	-0,4	0,1
Herbehereak	2,9	3,2	-0,5	-0,8
Danimarka	1,5	1,5	0,1	0,0
Suedia	2,3	2,4	0,2	-0,3
EB-27	2,2	2,6	-0,3	-0,1

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPIa
Iturria: Eurostat

Ildo beretik, erakundeak aitortu duenez, "merkataritza-politikei buruzko ziurgabetasunak enpresa-inbertsioari eta esportazioei eragingo diela espero den arren, batez ere epe laburrean, defentsaren eta azpiegituren arloko inbertsio publikoa handitzeak epe ertainerako hazkundera babestuko du pixkanaka. Errenta errealak igotzen badira eta lan-merkatua sendoa bada, etxeek gehiago gastatu ahalko dute, eta horrek, finantzaketa-baldintza onuragarriagoekin batera, indartu egin beharko luke ekonomiak munduko nahasmenduen aurrean duen erresistentzia-gaitasuna". Hori bai, erakundeak beretzat gordetzen du moneta-politikaren estrategia hori doitzeko aukera, jardueraren martxari jarraiki eta ziurgabetasun ekonomiko globalari mesede egiten dioten faktoreen arabera.

Euribor, hamabi hilabete (%)



Iturria: Espainiako Bankua


EAEko BPGd-a

Bigarren hiruhilekoko aurrerapen-datuek¹⁷ diote EAEko ekonomia % 2,2 eta % 0,5 hazi zela, hurrenez hurren, urte arteko tasan eta hiruhileko arteko tasan. Zifra horiek seiuhilekoaren ibilbidea sendotzen dute, kontuan hartuta lehenengo bi hiruhilekoek % 2ko atalasea gainditzen dutela, eta, horri esker, urteko helburua (% 2,1 ingurukoa)¹⁸ betetzetik hurbilago dagoela.

EAEko BPGd-a % 2,2 hazi da bigarren hiruhilekoan

Eustatek adierazitakoaren arabera, "aurrerapen hau egiteko unean eskura dagoen informazio ekonomiko koiunturalak adierazten duenez, bigarren hiruhileko honetan ikusitako urte arteko hazkundea zerbitzuen sektorearen bilakaerari esker da nagusiki", eta iruzkin hori bat dator hazkunde ekonomikoa barne-eskarian eta, batez ere, kontsumoan oinarritzen duen aurreikuspenarekin.

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaroko eta egutegiko efektuak zuzenduta dituzten datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

EAEko jardura ekonomikoak¹⁹ % 2,1 eta % 0,7 haziz eman zion hasiera 2025ari, urte arteko eta hiruhileko arteko tasan²⁰, eta hazkunde-maila sendoak erakutsi zituen EAEko ekonomiarentzat. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoa, urtetik urtera, % 2,1 hazi da gutxienez hirugarren hiruhilekoz jarraian, kontuan hartuta bigarren hiruhilekoaren aurrerapena; hobekuntza oso leuna izan du, dirudienez.

Hazkunde horrek zerbitzuen sektorea du euskarri, eta sektore horren dinamismoa gainerako sektoreena baino handiagoa da (+% 2,6). Hala, konpentsatu egiten du lehen sektoreari esleitutako jaitsiera (-% 1,0), zenbaki negatiboetara itzuli baita, hamar hiruhilekoz jarraian

¹⁷Uztailaren 16an argitaratuak. Bigarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen (Eustat) emaitzak irailaren 19an argitaratuko dira.

¹⁸Ekonomia Zuzendaritzak, hiruhilekoko aurreikuspenetan (2025eko ekaina) iragarri zuen lehenengo eta bigarren hiruhilekoan urte arteko % 1,9ko eta % 2,1eko hazkunde gertatuko zela. Eustatek argitaratutako datuetan (+% 2,2 eta +% 2,1) aurreikuspen hori hobea da lehenengo hiruhilekorako.

¹⁹Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen (Eustat) emaitzak ekainaren 6an argitaratu ziren.

²⁰Hiruhileko Kontuen Aurrerapenean (apirilak 16) jasotako hiruhileko tasak eta urte artekoak hamarren bat hobetu dira.

gorantz egin ostean. Eraikuntzaren sektoreak hobetzeko bideari eutsi dio (+% 1,6), nahiz eta atzerapausoak egin 2024ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Azkenik, industriaren eta energiaren sektoreak hazkunde-tarte ahulago baten barruan dirau, eta ez du % 1eko langa gainditzea lortu hiru hiruhilekoz jarraian (% 0,7).

Sektore-profil horrek bat egiten du²¹ kontsumo publikoaren (+% 2,0) eta pribatuaren (+% 2,6) urte arteko hazkundearekin, horri kapital-eraketa gordinaren/inbertsioaren bilakaera positiboa gehitzen zaiolarik (+% 2,2). Batera, barne-eskariaren % 2,4ko hazkundera zehazten dute, eta horrek kanpoko sektorearen ekarpena hobetzen du (% 1,7) 2025eko lehenengo hiruhilekoan, BPGd-aren % 2,1eko hazkundera izanik ondorio.

Oro har positiboa den ibilbide ekonomiko horrekin batera, gehieneko historikoetan dauden enpleguari buruzko datuak datoz: lehenengo hiruhilekoan 996.897 lanpostu zeuden lanaldi osoko baliokidetzan, hau da, % 1,5eko gehikuntza urtetik urtera eta 14.838 lanpostu (LOB). Zifra hori, bigarren hiruhilekorako aurreratu den hiruhileko arteko igoeraren arabera (+% 0,3), ia milioi bat lanpostutara iritsiko litzateke EAEn (999.888 lanpostu lanaldi osoko baliokidetzan).

Enplegua % 1,5 igo zen lehenengo hiruhilekoan, eta milioi bat LOB lanpostu gainditu zituen.

Azkenik, enpleguaren bilakaera eta osaera zehaztuz (lehenengo hiruhilekoa), aipatzekoa da hazkundera handiagoa izan dela zerbitzuen sektorean (+% 1,8), eta enplegu osoaren % 72,5 eta aipatutako irabazi garbiaren % 88,1 hartzen dituela. Hala ere, industria-enpleguaren dinamismoa (+% 0,6) zerbitzuen sektorean adierazitakoaren erdia baino gutxiago da, eta EAEko enplegu osoaren % 20,4 hartzen du, sortutako irabazi garbiaren % 8 eskas izanik.

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

	2024				2025
	I	II	III	IV	I
BPGd-a	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Lehen sektorea	6,5	2,8	1,0	2,2	-1,0
Industria eta energia	1,7	1,0	0,8	0,5	0,7
Eraikuntza	2,2	1,0	0,9	2,2	1,6
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,5	2,7	2,6
LOB Enplegua	2,0	1,9	1,6	1,6	1,5

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

Iturria: Eustat (kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaroko eta egutegiko efektuak zuzenduta dituzten datuak. BPGd-a bolumen kateatuko indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

²¹BPGD-aren desagregazioa eskaririk.

LAN-MERKATUA


Afiliazioa

Urtearen hasiera oso positiboa izan ondoren (martxoa, 199,04 mila afiliazio), bigarren hiruhilekoan uriko afiliazioak beherakada txikia jasan du²² (-% 0,9, hiruhileko arteko tasan; ekaina, 197,3 mila afiliazio). Hala ere, zifra horrek urte arteko hobekuntza-bidea sendotzen jarraitzen du (+% 1,2), 2.354 afiliatu irabazi baitira. Baina ekaina agertu da urte arteko irabazirik txikiena izan duen hilabete gisa (6.058, 5.285, 7.430, 4.659 eta 6.649, urtariletik maiatzera), eta horrek afiliazioaren hazkunde-erritmoa motelduko dela adierazi dezake.

Bilbok 2.354 afiliazio erdietsi ditu 2024ko ekainarekin alderatuta

Guztiarekin ere, uriko afiliazioaren ibilbideak profil gorakorrari eutsi dio argi eta garbi, hileko batezbestekoa 198.322 afiliaziokoa baita. Zifra hori % 2,8 handiagoa da 2024ko lehenengo sei hilekoko batez besteko balioa baino (192.931 afiliazio): izan ere, hobekuntza-erritmo horri eutsiz gero, urtearen itxieran 200.000 afiliazio baino gehiago egon litezke.

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Hiruhileko arteko galera berdina da –beste erregimen batzuen taldea²³ izan ezik, hondar-ekarpen batekin–; horrenbestez, arreta urte arteko bilakaeran jarritz gero, ikusten da erregistratutako hobekuntza Erregimen Orokorren bultzadan oinarritzen dela (+% 1,7 urtetik urtera; +2.787 afiliazio), kontuan hartuta gainerako guztiek bilakaera negatiboa dutela. Modu horretan, erregimenaren araberako afiliazioaren osaerak hor dirau, eta, beraz, Erregimen Orokorrek afiliazio osoaren % 85,4an laguntzen du, eta bere posizioak indartzen ditu (% 85,0, 2024ko ekainean); gainerako aukerek, berriz, samar galtzen dute pisua. Langile Autonomoen Erregimen Berezia da garrantzitsuen²⁴ (% 11,1).

Erregimen orokorreko afiliazioaren urte arteko igoera (+% 1,7)

²²Portaera berdina: hiruhileko arteko tasa negatiboa 2015. eta 2025. urteen artean, 2018an eta 2024an salbu.

²³Nekazaritza Erregimena eta Itsas Erregimena hartzen ditu barne.

²⁴ Etexko langileen erregimena, % 3,1, eta gainerako erregimenak, % 0,1.

Afiliazioa, araubideen arabera

	2025.06	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko mar.)	Δ % urte artekoa (2024ko ekai.)
GUZTIRA	197.303	-0,9	1,2
Erregimen Orokorra	168.506	-0,9	1,7
Autonomoak	21961	-0,6	-0,5
Etxeko langileak	6.127	-1,6	-4,3
Beste batzuk	709	3,4	-7,7

Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	2025.06	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko mar.)	Δ % urte artekoa (2024ko ekai.)
Lehen sektorea	242	16,9	-3,6
Industria eta energia	9.230	1,4	2,2
Industria	5.465	1,3	5,8
Energia	1.131	-1,8	-1,1
Hondakinak eta ura	2.634	2,9	-3,1
Eraikuntza	9.498	0,6	1,4
Eraikuntza	3.407	0,2	3,4
Eraikuntzako laguntzaileak	6.091	0,9	0,3
Zerbitzuak	178.325	-1,1	1,2
Merkataritza	20.384	1,1	-0,6
Garraioa eta biltegiratzea	10.119	0,9	7,2
Ostalaritza	11.061	-3,5	1,9
Ostatua	2.081	6,6	4,0
Informazioa eta komunikazioak	11.131	-0,5	2,7
Finantza eta aseguruak	7.785	1,0	4,6
Higiezin jarduerak	1.224	0,3	-0,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.543	-0,6	2,4
Administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	18.598	0,6	-2,6
Administrazio publikoa	12.197	-1,2	0,2
Hezkuntza	24.680	-9,1	1,9
Osasuna	15.721	4,3	1,1
Gizarte zerbitzuak	10.226	2,4	1,7
Aisialdia eta kulturakoak	4.219	-6,9	1,5
Etxeko langileak	6.565	-1,4	-4,3
Beste zerbitzu batzuk	6.791	1,4	1,7

Oharra: guztira arteko desberdintasuna sektore-esleipena zehaztuta ez dituzten afiliazioei dagokie.

Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliazioaren hiruhileko arteko bilakaerak zerbitzuen sektorearen jarduera negatiboa erakusten du (-% 1,1), afiliazioaren guttizkoari eragiten diona (-% 0,9); izan ere, ezin da konpentsatu industriaren eta energiaren jarduerak (+% 1,4) eta eraikuntzaren jarduerak (+% 0,6) izandako hobekuntzarekin. Jardueraren arabera xehetasunek erakusten dute hezkuntzako afiliazioak atzera egin duela (-% 9,1, 2.138 afiliazio gutxiago), eta horri ostalaritza (-% 3,5), informazioa eta komunikazioa (-% 0,5), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (-% 0,6), Administrazio Publikoa (-% 1,2) eta aisialdi- eta kultura-jarduerak (-% 6,9) gehitu behar zaizkio, hiruhileko arteko profila negatiboa izanik.

Zerbitzuen atzerakada
hiruhileko artean (sasoikoa)

Urte arteko kopuruetan, sektoreek hobekuntza antzeman dute: gehien hazitakoa industria eta energia izan da (+% 2,2 urtetik urtera; 202 afiliazio), eta, ondoren, eraikuntza (+% 1,4 urtetik urtera; 131 afiliazio) eta zerbitzuak (+% 1,2 urtetik urtera; 2.036 afiliazio). Kontrara, lehen sektoreari atxikitako afiliazioa hutsala da uriko ekonomiarako, eta jaisten jarraitzen du (-% 3,6; 9 afiliazio gutxiago).

Sektoreko afiliazioa
hobetzeko joera komuna
urtetik urtera

Jarduera-adarren arabera analisiak urte arteko hazkunde orokorra erakusten du, eta nabarmengarri dira garraioan eta biltegiatzean (+% 7,2), finantzetan eta aseguruetan (+% 4,6) eta ostatuan (+% 4,0) izandako igoera handienak, bai eta hezkuntzari (+% 1,9), osasunari (+% 1,1) eta gizarte-zerbitzuei (+% 1,7) dagozkienak ere. Horiek ez dira hain handiak izan, baina esanguratsuak dira, uriko afiliazioan duten pisuagatik. Aitzitik, lau jarduerak bakarrik egin dute atzera, eta aipagarriak dira (dimentsioaren arabera) merkataritza (-% 0,6) eta etxeko enplegua (-% 4,3).

Benchmarkinga. Afiliazioa

	2025.06	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko mar.)	Δ % urte artekoa (2024ko ekai.)
Madril	2.393.119	0,0	2,4
Bartzelona	1.246.989	0,4	1,2
Valentzia	470.003	0,4	3,5
Sevilla	413.822	-0,3	2,8
Zaragoza	322.258	-0,7	1,6
G-5aren batezbestekoa	--	0,0	2,3
BILBO	197.303	-0,9	1,2
Gasteiz	129.128	-0,2	0,5
Donostia	127.507	0,5	0,3
Iruñea	118.044	-0,3	0,6
G-3aren batezbestekoa	--	0,0	0,5
G-9aren batezbestekoa	--	-0,1	1,6

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea.. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantza

Patroia erreferentziazko hiriburuen artean errepikatzen da, eta hiruhileko arteko dinamismoa galdu da (Sevillan eta Zaragozan soilik izan da negatiboa), urte arteko indarraren aldean. Zehazki, Estatuko hiriburuetakako afiliazioa, batez beste, % 2,3 hazi da urtetik urtera: Valentzian (+% 3,5), Sevillan (+% 2,8) eta Madrilan (+% 2,4) erregistratu dira zifra altuagoak, eta atalase horren azpitik geratu da Zaragoza (+% 1,6) eta Bartzelona (+% 1,2). Era berean, EAEko hiriburuetakako afiliazioa, batez beste, % 0,5 igo da urtetik urtera, eta haien arteko portaera oso antzekoa da, Bilbokoa (+% 1,2) eta, jakina, Estatuko hiriburuena baino txikiagoa.

Gorakada erreferentziazko
hiriburu guztietako
enpleguan, urtetik urtera

Kontratuak

Bigarren hiruhilekoan Bilbon bizi direnen 28.521 kontratu berri erregistratu dira, hiruhileko arteko hazkundea nabarmena izan da (+% 10,7), baina, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, pixka bat koskorragoa (-% 0,4). Aldi baterako kontratazioaren dinamismoaren emaitza da hori (+% 14,2 eta +% 22,7, hiruhileko arteko tasan eta urte artekoan), zeinak kontratazio mugagabearen jardunik txarrena konpentsatzen baitu (+% 2,3 eta -% 33,4, hurrenez hurren). Horrela, aldi baterako kontratuak pisua hartu dute (guztizkoaren % 72,5), eta kontratazio mugagabeak, ordea, behera egin du (% 27,5), guztizkoaren herena baino txikiagoa izanik (azken hirurtekoan indarrean egon den ratioa)²⁵.

Uriko egoiliarren kontratu berrien hobekuntza hiruhileko artean (+% 10,2)...

Hiruhileko arteko hobekuntzaren emaitzak emakumeen kontratazioaren bultzadan oinarritzen dira (+% 5,0), gizonen kontratazioan izandako jaitsieraren aldean (-% 5,5), bai eta bi talde gazteenen hobekuntzan ere (+% 40,8 eta +% 4,8), adin gehiagoko bi taldeen aldean (+% 2,4 eta -% 1,1), eta, era berean, lehen sektorean salbu (+% 0,8), hiru sektore handiak % 10etik gora hazi dira. Urte arteko geldialdia (-% 0,4) gizonezkoen kontratazioan (-% 5,5) eta adin handieneko taldeetan (35-44 urte: -% 6,4; 45 urte eta gehiagokoak: -% 6,1) egon den atzerakadaren ondorio da. Paradoxikoki, lehen sektoreko (+% 8,6), industriako eta energiako (+% 3,8) eta eraikuntzako (+% 4,5) jarduerak positiboak dira, baina ez dute konpentsatzen zerbitzuen sektorearen urte arteko atzerakada (-% 1,1).

... baina urte arteko geldialdia (-% 0,4)

Bilboko biztanleek 54.295 kontratu berri lortu dituzte urteko lehenengo sei hilekoan; 2024ko datuekin alderatuta, % 1,9ko atzerakada jazo da (1.049 kontratu gutxiago). Galera hori gizonezkoen artean (-2.162 kontratu) eta 35 urte eta gehiagoko pertsonen artean (-1.430) bildu da. Emakumeek (+1.113 kontratu) eta gazteenek (+381), aitzitik, bultzada nabaritu dute kontratazioan. Azpimarratu beharra dago, gainera, galera oso garrantzitsua dela kontratazio mugagabeen (-4.205 kontratu) eta zerbitzuen sektorean (-% 2,5 eta -1.216 kontratu). Hala, urtea datu positiboetan ixteko, bigarren sei hilekoak hobera egin behar du, lehenengoaren emaitza negatiboa konpentsatzeko adina.

Kontratuak

	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko I. hiruhileko gainean)	Δ % urte artekoa (2024ko II. hiruhileko gainean)	2025eko I. sei hilekoa % Δ urte artekoa	Kop.
GUZTIRA	25.774	28.521	10,7	-0,4	-1,9	-1.049
Emakumeak	13.477	14.653	8,7	5,0	4,1	1.113
Gizonak	12.297	13.868	12,8	-5,5	-7,6	-2.162
16-24 urtekoak	5.713	8.042	40,8	7,5	1,0	134
25-34 urtekoak	7.769	8.142	4,8	2,0	1,6	247
35-44 urtekoak	5.101	5.222	2,4	-6,4	-5,6	-618
45 urte eta gehiagokoak	7.191	7.115	-1,1	-6,1	-5,4	-812
Mugagabeak	7.668	7.841	2,3	-33,4	-21,3	-4.205
Aldi baterako kontratuak	18.106	20.680	14,2	22,7	8,9	3.163
Lehen sektorea	376	379	0,8	8,6	7,4	52
Industria eta energia	2.010	2.298	14,3	3,8	3,7	153
Eraikuntza	1.044	1.172	12,3	4,5	-1,6	-36
Zerbitzuak	22.340	24.672	10,4	-1,1	-2,5	-1.216

Bilbon bizi den populazioaren kontratazio berriak (erregistratuak).
Iturria: Lanbide

²⁵ 2021eko abenduaren 28an onetsitako lan-erreforma indarrean jarrita.

Erregistratutako langabezia


Ekainean, 20.443 langabetu erregistratu dira Bilbon, hau da, urte arteko jaitsiera % 2,6koa izan da (538 pertsona gutxiago). Hori izan da ekainean erregistratutako langabezia-zifrarik txikiena 2009tik (20.437), baina, aldi berean, urian bizi direnen kontratazio berria gelditu egin da. Afiliazio osoak, bestalde, gorantz jarraitzen du (afiliatutako pertsonak bizi diren udalerria edozein dela ere), eta horrek enpleguan sar daitezkeen egoiliarak nolabait azkentzea adierazi dezake.

Erregistratutako langabezia minimo historikoetara jaitsi da.

Langabeziaren jaitsiera handiagoa da gizonezkoen kolektiboan (-% 3,6; -331 gizon langabetu) emakumezkoen baino (-% 1,7; -207 emakume langabetu), eta adin-talde guztien artean banatuta dago; nabarmentzekoa da 35-44 urteko kolektiboetan (-% 4,8 urtetik urtera) eta 45 urte eta gehiagokoetan (-% 2,5 urtetik urtera) erregistratutako atzerakadak.

Langabeziaren denborari begirata, zifrak hobera egin du lau taldeetatik hirutan, eta jaitsiera nabarmena izan du langabetuta 1-2 urte daramatzaten pertsonen kolektiboan (-% 6,8 urtetik urtera), baina igo egin da 2-3 urte hala daramatzatenen artean (+% 4,6 urtetik urtera). Gainera, aipatutako bilakaerarekin bat etorritik, gehiagotu egin da langabeziagatik prestazioa kobratzen ez dutenen kolektiboan (+% 0,4 urtetik urtera).

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE eta Lanbide.

Hiruhilekoko bilakaera positiboa da, % 4,2 jaitsi baita martxoko langabeziarekin alderatuta (893 langabetu gutxiago); sasoiaren arabera ohiko dinamika islatzen du horrek, normalean urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako langabezia jaitea eragiten duena. Murrizketa hori handiagoa izan da gizonezkoen kolektiboan (-% 5,6), 16-24 urte bitarteko gazteen taldean (-% 12,5) eta langabezia 6 hilabete edo gutxiago daramatzan kolektiboan (-% 11,9) eta, aldi berean, 2-3 urte hala daramatzaten pertsonen kopuruak gora egin du (+% 1,0).

Erregistratutako langabezia

	2025.06	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko mar.)	Δ % urte artekoa (2024ko ekai.)
GUZTIRA	20.443	-4,2	-2,6
Emakumeak	11.635	-3,1	-1,7
Gizonak	8.808	-5,6	-3,6
16-24 urtekoak	1.770	-12,5	-0,9
25-34 urtekoak	3.286	-6,9	-0,9
35-44 urtekoak	3.886	-4,3	-4,8
45 urte eta gehiagokoak	11.501	-1,9	-2,5
Sei hilabete baino gutxiago	6.424	-11,9	-2,1
Sei hilabete eta urtebete bitartean	2.984	0,0	-1,5
Urtebete eta bi urte bitartean	3.042	-1,2	-6,8
Bi eta hiru urte bitartean	1.805	1,0	4,6
Hiru urte baino gehiago	6.188	0,0	-3,3
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.276	-1,7	0,4

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Erregistratu den langabeziaren urte arteko portaera ona da aintzat hartutako hiriburuetan, baina alde handiak daude horien artean: Bartzelonak du emaitzarik txarrena (-% 0,1) eta Sevillak emaitzarik onena (-% 7,2). Oro har (G-5), % 4,5 jaitsi da. EAEko hiriburuei dagokienez, Donostiak dauka murrizketarik handiena (-% 5,6), Iruñea atzetik dagoela (-% 4,2), eta Gasteizen, berriz, pixka bat igo da (+% 0,3). Erregistratutako langabeziaren urte arteko jaitsieraren batez besteko emaitza (G-3) % 3,8 da.

Benchmarkinga. Erregistratutako langabezia

	2025.06	Δ % hiruhileko artekoa (2025eko mar.)	Δ % urte artekoa (2024ko ekai.)
Madril	131.563	-6,2	-4,4
Bartzelona	61.492	-3,2	-0,1
Valentzia	42.471	-5,1	-6,4
Sevilla	53.632	-5,6	-7,2
Zaragoza	27.683	-7,6	-4,3
G-5aren batezbestekoa	--	-5,5	-4,5
BILBO	20.443	-4,2	-2,6
Gasteiz	13.965	-3,8	0,3
Donostia	6.235	-5,7	-5,6
Iruñea	9.384	-7,5	-4,2
G-3ren batezbestekoa	--	-5,7	-3,2
G-9ren batezbestekoa	--	-5,4	-3,8


G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE

Biztanleria aktiboa

2025eko bigarren hiruhilekoari dagozkion Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, Bilbon 190,8 mila pertsona bizi dira modu aktiboan. Zifra hori aurreko hiruhilekokoaren antzekoa da, baina urte arteko gorakada handia adierazten du (+% 6,4 eta 11,4 mila pertsona aktibo gehiago). Eraitza horrek esan nahi du biztanle landunen dinamismo garrantzitsua dagoela (+% 9,4 urtetik urtera; +15,3 mila pertsona), eta, aldi berean, biztanle langabetuen atzerakada berresten da (-% 23,2; -3,9 mila pertsona).

Jarduera-sektoreen arabera, enpleguaren hobekuntza orokorra da, eta hazkunde handiak gertatu dira, urtetik urtera, zerbitzuei (+% 5,8), eraikuntzari (+% 106,2) eta, neurri txikiagoan, industriari lotutako okupazioan, azken horrek portaera laua baitu (+% 0,7). Modu horretan, urian bizi direnen langabezia-tasa % 6,8koa da, eta zertxobait handiagoa da emakumeen kolektiboan (% 7,6) gizonezkoen kolektiboan baino (% 5,9).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	2024.III	2024.IV	2025.I	2025.II	% Δ	
					Hiruhileko artekoa	Urte artekoa
Biztanleria aktiboa (milakotan)	176,7	182,1	190,3	190,8	0,3	6,4
Biztanleria landuna (milakotan)	161,6	160,9	168,0	177,9	5,9	9,4
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	--	--
Industria	16,5	17,4	18,2	14,5	-20,3	0,7
Eraikuntza	10,5	11,3	11,0	13,4	21,8	106,2
Zerbitzuak	134,7	132,1	138,8	150,0	8,1	5,8
Langabetuak (milakotan)	15,0	21,2	22,3	12,9	-42,2	-23,2
Enplegu-tasa (%)	52,0	51,2	52,9	56,5	3,7	3,1
Emakumeak	49,8	49,9	52,7	58,8	6,1	7,7
Gizonak	54,3	52,6	53,1	54,4	1,4	-1,7
Langabezia-tasa (%)	8,5	11,6	11,7	6,8	-5,0	-2,6
Emakumeak	8,3	12,1	10,0	7,6	-2,4	3,2
Gizonak	8,8	11,2	13,6	5,9	-7,7	-8,1

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntuetan.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

Informazio eguneratuenak (2025eko lehenengo hiruhilekoa) adierazten du merkataritzaren sektoreak gorantz hasi zuela urtea (+% 2,3, prezio korranteetan), eta, beraz, bi hiruhilekoz jarraian dabil positibo (aintzat hartutako hiru azpisektoreek laguntzen diote horri). Hala, azpimarratzekoak dira txikizkako salmenten dinamismoa (+% 3,7), handizkako segmentuaren susperraldia (+% 1,8) –negatiboan zeuden ondoz ondoko zazpi hiruhileko utzi ditu atzean– eta ibilgailuen salmentaren eta konponketaren moteltzea, goranzko joerari eutsi baitzion (+% 0,7), baina aurreko hiruhilekoetan baino erritmo baxuagoan²⁶.

Merkataritzak urte arteko gorakada handia duela ekin dio urteari (+% 2,3)

Prezio konstanteen balantzea positiboa da (+% 0,4), baina dinamismoa galdu du 2024 bukaeraren aldean (+% 1,5). Ibilgailuen salmentan eta konponketan (-% 0,6) eta handizkako jardueran (-% 0,5) erregistratutako atzerakadaren emaitza da, bilakaera negatiboan jarraitzen baitute. Bi segmentu horiek txikizkako merkataritzaren dinamismoak (+% 2,2) konpentsatzen ditu, batez ere elikagaien azpisegmentuaren urte arteko gehikuntzak (+% 3,8). Gainerako produktuen salmentetan, hobekuntza apala da (+% 0,5).

Sektoreko enpleguak atzera egin du (-% 0,4), eta beheranzko ibilbidea berretsi du (+% 2,6, +% 1,7, +% 1,4 eta +% 0,5, urte arteko tasan, 2024ko lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Hamabost hiruhilekoz jarraian izandako lehenengo atzerakada da, eta, gainera, 2015 eta 2025 bitartean izandako lehenengo lau hiruhileko negatiboetako bat (2015, 2020 eta 2021).

Alabaina, sektoreko enpleguak atzera egin du (-% 0,4)

Azken batean, merkataritzaren sektoreak modu positiboan ekin dio urteari, sektorea osatzen duten jarduera guztietako salmenten hobetzeak bultzatuta. Baina, bestalde, enpleguaren ibilbidean dezelerazio-profila antzeman da, eta badirudi, hamabost hiruhilekoz jarraian lehenengo aldiz, hazteari utzi diola.

Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio korranteak)			(Prezio konstanteak)		
	2024.III	2024.IV	2025.I	2024.III	2024.IV	2025.I
Merkataritza-salmentak guztira	-0,5	1,6	2,3	-0,5	1,5	0,4
Ibilgailu motordunak saltz.- konpo.	6,6	9,5	0,7	7,4	8,3	-0,6
Handizkako merkataritza	-4,1	-1,5	1,8	-4,3	-1,0	-0,5
Txikizkako merkataritza*	5,1	5,1	3,7	4,4	4,0	2,2
Elikagaiak	3,2	5,4	5,0	2,7	4,4	3,8
Gainerako produktuak	7,2	4,8	2,3	6,2	3,7	0,5
Landunen indizea	1,4	0,5	-0,4	--	--	--

*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra. Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. Oinarria: 2021.
Iturria: Eustat

2025eko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek erritmo onean jarraitzen dute hazten (+% 5,9 eta +% 3,2, prezio korranteetan eta konstanteetan). Emaita positibo hori elikagaien segmentutik (+% 5,7 eta +% 2,2, prezio korranteetan eta konstanteetan) eraiki da, eta, batez ere, elikagaiez besteko osagaitik (+% 6,1 eta +% 4,9, prezio korranteetan eta konstanteetan).

Saltoki handietako salmentek hazten jarraitzen dute Bizkaian

²⁶Aurreko hamabi hiruhilekoetan erregistratutako urte arteko hazkundea % 1,5etik gorakoa izan zen.

Jarduerak lehenengo hiruhilekoan galdutako bultzada berreskuratu du, eta seihilekoaren balantzeak urte arteko hazkunde nabarmena erakusten du (+% 4,3 eta +% 1,6, prezio korranteetan eta konstanteetan), elikagaiez besteko segmentua izanik giltzarri (+% 4,5 eta +% 3,0, prezio korranteetan eta konstanteetan). Halaber, bigarren hiruhileko honetan, enpleguaren hobekuntza itzela nabarmendu behar da (+% 1,8), aurreko emaitzak indartu baititu.

Merkataritza-gune handiak

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio korranteak)			(Prezio konstanteak)		
	24.IV	25.I	25.II	24.IV	25.I	25.II
Salmentak	4,3	2,7	5,9	1,4	0,0	3,2
Elikagaiak	4,9	2,7	5,7	1,3	-0,8	2,2
Gainerako produktuak	3,2	2,7	6,1	1,5	1,1	4,9
Landunen indizea	0,4	0,5	1,8	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Oinarria: 2021. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

Bigarren hiruhilekoan 4.291 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian, eta 2025eko lehenengo hiruhilekoko emaitzak hobera egin du (+% 26,4), berriz ere 4.000 unitate baino gehiago saldu baitira (4.220, 2024ko laugarren hiruhilekoan). Matrikulazio berriaren ibilbide positiboa berretsi da, partikularren segmentuak lagunduta (+% 26,1), Lurraldean matrikulatutako hamar ibilgailutik zazpi (% 69,7) hartzen baititu, enpresen segmentuan eta beste batzuetan izandako hobekuntzarekin batera (+% 27,0).

Gehitu egin da ibilgailu berrien matrikulazioa Bizkaian (+% 3,0 urtetik urtera)

Eusko Jaurlaritzak abiarazitako "Emisio gutxiagoko ibilgailuak" deituriko laguntza-programa apirilaren 1ean sartu zen indarrean, eta eragina izan zuen, hala erakusten baitu hileko urte arteko hazkundeak (+% 9,4, -% 5,0, +% 5,1, +% 22,9, +% 19,8 eta +% 36,7, urtariletik ekainera), bai eta bigarren hiruhilekoko matrikulazio berrien hileko batezbestekoak ere (1.430 ibilgailu), lehenengo hiruhilekoan lortutakoa baino % 26,3 handiagoa baita (1.132 ibilgailu). Hala, lehenengo seihilekoan 7.686 ibilgailu berri matrikulatu dira, hots, duela urtebete baino % 14,9 eta 995 ibilgailu gehiago. Partikularren segmentuan (+% 14,3) eta enpresa eta bestelakoetan (+% 16,1) antzeko hobekuntza egon da.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2024.III	2024.IV	2025.I	Kop.	2025.II	
					Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Guztira	3.061	4.220	3.395	4.291	26,4	26,4
Partikularrak	2.123	2.693	2.370	2.989	26,1	24,2
Enpresakoak eta beste batzu	938	1.527	1.025	1.302	27,0	31,6

Datos de Bizkaia.
Iturria: Anfac

Bestalde, urteko bigarren hiruhilekoan, uriko merkataritza-sektoreko afiliazioa 20.384 pertsonakoa da; urte arteko jaitsiera arina (-% 0,6) eta hiruhileko arteko igoera (+% 1,1), hortaz. Ohikoa izaten da hori sasoi honetan, kontuan hartuta lehenengo hiruhilekoa, historikoki, aldirik txarrena izan dela afiliazioari erreparatuz. Beste behin, 20.000 afiliatu baino gehiago daude, eta baldintza hori 2024ko bigarren hiruhilekotik betetzen da. Zifra horren inguruan nolabaiteko sendotasuna aurkezten zaigu.

Bilboko merkataritza-sektoreak 2024ko ekainean baino 128 afiliazio gutxiago erregistratu ditu (-% 0,6).

Uriko merkataritza-sektoreko lau lanpostutik hiru txikizkako merkataritzari atxikitzen zaizkio (15.145 afiliazio), eta, 2024ko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta, hobera egiten duen segmentu bakarra da (+% 0,6), ibilgailuen salmentak eta konponketak jasandako galera konpentsatuta (-% 4,8), bai eta handizkako merkataritzak jasandakoa ere (-% 3,7). Hiruhileko arteko tasan, txikizkako merkataritzak eta ibilgailuen salmenta eta konponketak afiliatu gehiago irabazi dituzte (+% 1,6 eta +% 0,3, hurrenez hurren); handizkako merkataritzak, berriz, alderantzizkoa (-% 0,6). Bestalde, aipatzekoa da enplegu autonomoak uriko afiliazio sektorialaren % 24,6 osatzen duela, eta hori izan dela, adierazle horri dagokionez, azken bost urteetan agertu den ehunekorik baxuena.

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2024.09	2024.12	2025.03	2025.06	hiruhileko artekoa	urte artekoa
Afiliatuak¹	20.181	20.856	20.171	20.384	1,1	-0,6
Handizkako merkataritza	4.266	4.231	4.165	4.140	-0,6	-3,7
Txikizkako merkataritza	14.779	15.488	14.910	15.145	1,6	0,6
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.136	1.137	1.096	1.099	0,3	-4,8
Enpresak²	2.345	2.387	2.350	2.350	0,0	-0,8
Handizkako merkataritza	582	572	571	567	-0,7	-2,7
Txikizkako merkataritza	1.602	1.654	1.625	1.630	0,3	0,2
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	161	161	154	153	-0,6	-4,4
Soldatapeko batez besteko enplegua³	6,4	6,6	6,4	6,5	--	--
Enplegu autonomoaren %	25,7	24,9	25,3	24,6	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, Araubide Orokorreko afiliatorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutakoak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.

Iturria: GSDN

Merkataritza-sektorea osatzen duen enpresa-sarea 2.350 enpresakoa da, martxoko kopuru berak. Edonola ere, aldakuntza txikiak daude azpisektorearen arabera: Txikizkako merkataritzak gora egin du (+% 0,3), baina handizkako merkataritzak eta ibilgailuen salmenta eta konponketak, behera (-% 0,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren). Guztiarekin ere, sektoreko ekoizpen-ehunaren zatirik handiena txikizkako merkataritzari dagokio, urian 1.630 enpresa baitaude. Gainera, enpresaren batez besteko tamaina hau da: 6,5 soldatapeko, enpresa bakoitzeko.

Sektoreko enpresen kopurua egonkor mantendu da martxoko kopuruekin alderatuta

TURISMOA

Bigarren hiruhilekoan, uriko hotel-establezimenduek 336.954 bidaiari eta 646.490 gaualdi zenbatu zituzten; urte arteko hazkunde itzela da hori (+% 13,4 bi kategorietan). Emaizta horiek nazioarteko bidaiarien dinamismoaren ondorio dira (+% 15,6), estatukoak gainditzen baitituzte (+% 10,5), eta emaitza hori ostatu-gauetan errepikatzen da (+% 14,5 eta +% 11,1). Hala, nazioarteko osagaiak bidaiarien % 58,7 eta ostatu-gauen % 62,9 hartzen ditu, eta batez besteko egonaldia (2,06 egun) Estatuko segmentuan baino zertxobait luzeagoa da (1,72 egun). Hiruhilekoaren balantze horretan ikusten denez, urte arteko dinamismoa mesedegarriago zaio hiru izar arteko hotelen taldeari (+% 19,5), hiru izar eta gehiagoko hotelen aldean (+% 11,4); hala ere, ostatu-gauen % 74,0 irudikatzen du azken horrek.

Bilbok milioi bat ostatu-gau baino gehiago erregistratu ditu (lehenengo aldiz) urteko lehenengo seiuhilekoan

Gauzak horrela, seiuhilekoaren balantzea oso positiboa da, urte arteko irabazia % 10etik gorakoa baita bidaiari eta ostatu-gauetan (+% 10,7 eta +% 10,5). Ondorioz, 2024ko lehenengo seiuhilekoko emaitza hautsi du, urte bi aldagaian urte arteko galera arina gertatu baitzen (-% 0,5 eta -% 1,4, hurrenez hurren). Halaber, nazioarteko segmentuaren irabaziaz (+% 12,6 eta +% 12,2) Estatuko segmentuarena (+% 9,0 eta +% 8,6) gainditzen du, bidaiariei eta gaualdiei dagokienez. Era horretan, jardueraren erdia baino gehiago nazioarteko osagaiari zor zaio (bidaiarien % 50,1 eta gaualdien % 54,8).

Dinamismo nabarmena nazioarteko segmentuan (+% 12,2) eta Estatukoan (+% 8,6)

Sei hileko emaitza hori aintzat hartutako bi hotel-taldeetan errepikatzen da, nahiz eta hiru izar baino gutxiagoko hoteletan eta pentsioetan erregistratutako gaualdiak areago gehitu diren (+% 18,6). Ez hainbeste hiru izar eta gehiagoko taldekoak (+% 8,0), baina uriko hotel-jardueraren zati nagusia izaten jarraitzen du (ostatu-gauen % 74,7).

Lau ostatu-gautik hiru, hiru izar eta gehiagoko establezimendu batean

Turismoa

	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	2025eko I. seiuhilekoa	Δ % urte artekoa
Ostatu-gauak	437.749	646.490	47,7	13,4	1.084.239	10,5
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	331.382	478.668	44,4	11,4	810.050	8,0
Hiru izar baino gutxiagoko hotelak eta pentsioak	106.367	167.822	57,8	19,5	274.189	18,6
Estatukoak	249.955	239.589	-4,1	11,1	489.544	8,6
Atzerritarrak	187.794	406.901	116,7	14,7	594.695	12,2
Bidaiariak	237.315	336.954	42,0	13,4	574.269	10,7
Estatukoak	147.620	139.026	-5,8	10,5	286.646	9,0
Atzerritarrak	89.695	197.928	120,7	15,6	287.623	12,6
Batez besteko egonaldia	1,84	1,92	--	--	1,89	--

Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiariak (egunak) Aldakuntza ehuneko puntuetan.
Iturria: Eustat


Emaizta horiek hainbat arrazoiengatik azaltzen dira, hala nola Aste Santuaren kokapen desberdinagatik (hilekoa)²⁷, apirilean bidaiarien eta gau-ostatuaren gehikuntza bultzatzen baitu (+% 13,0 eta +% 15,3), maiatzeko²⁸ (+% 16,0 eta +% 14,4) eta ekaineko (+% 11,2 eta +% 10,4) jardun positiboarekin batera. Horrela, hilabete bakoitzak oso antzeko ekarpena

²⁷ 2024ko Aste Santua martxoaren 28tik (Ostegun Santua) apirilaren 1era (Pazko Astelehena) izan zen. 2025ean, aldiz, apirilaren 17tik 21era.

²⁸ Nazioarteko kirol-ekitaldia.

egiten dio jardueraren hiruhileko osoari, bai bidaiariei dagokienez (% 31,7, % 35,4 eta % 32,9), bai ostatu-gauai dagokienez (% 31,9, % 35,3 eta % 32,8), eta erabakigarria da nazioarteko segmentuaren ibilbidea, bidaiarien erdia baino gehiago baitakartza hilean (% 56,5, % 62,5 eta % 56,8), bai eta ostatu-gauen erdia baino gehiago hartu ere (% 60,5, % 67,1 eta % 60,8).

Bidaiariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Lehenengo seihiilekoa oso positiboa da Bilbon (+% 10,5), Estatuko hiriburuen taldeak izandako jaitsieraren aldean (-% 1,4 ostatu-gauetan)²⁹, Valentzian (-% 6,0), Bartzelonan (-% 2,5) eta Zaragozan (-% 0,9) erregistratutako jaitsierek eraginda, eta Madrilek (+% 2,2) nahiz Sevillak (+% 0,1) ezin konpentsatu. Aitzitik, EAEko hiriburuak urte arteko hobekuntza bateratua (+% 3,0) eta orokorra izan dute, baina betiere Bilbokoa baino txikiagoa (+% 10,5).

Bilboko datuak gailentzen dira erreferentziazko hiriburuetakoen aldean

Benchmarkinga. Ostatu-gauak

	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	2025eko I. seihiilekoa Δ % urte artekoa
Madril	4.775.538	5.740.326	20,2	3,4	2,2
Bartzelona	4.580.601	5.828.058	27,2	-1,7	-2,5
Valentzia	1.025.006	1.299.472	26,8	-4,4	-6,0
Sevilla	1.541.289	1.788.138	16,0	0,1	0,1
Zaragoza	432.018	547.338	26,7	3,1	-0,9
G-5aren batezbestekoa (hiriak)	--	--	23,4	0,1	-1,4
BILBO	437.749	646.490	47,7	13,4	10,5
Gasteiz	184.818	225.329	21,9	5,3	3,4
Donostia	377.519	587.959	55,7	2,9	0,8
Iruñea	128.385	184.252	43,5	7,4	4,6
G-3ren batez bestekoa (hiriak)	--	--	40,4	5,2	3,0
G-9ren batez-bestekoa (hiriak)	--	--	31,8	3,3	1,4

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. Iturria: Eustat eta EIN

²⁹ Espainian, ostatu-gauen urte arteko gehikuntza % 0,4koa izan da urteko lehenengo seihiilekoan (EIN).

GARRAIOA

Aireko garraioa

Loiuko aireportuak 1.984.896 bidaiari zenbatu ditu bigarren hiruhilekoan, hau da, urte arteko % 6,6ko igoera eta 123.616 bidaiari garbi gehiago. lazko kopurua argiro gaintitu da, eta bigarren hiruhileko batean izandako gehieneko berriak ezarri dira aireportuan. Guztiarekin ere, zehaztu beharreko emaitzak dira, eta finkatuak izateko zain daude, 2025ean Aste Santua apirilean izan zelako (2024an, berriz, martxoan), eta, gainera, aipatzekoa da aerodromoak aire-bideak eta helmugak gehitzen jarraitzen duela.

Loiuko jarduera % 6,6 hazi da urtetik urtera


Bidaiarien trafikoaren hobekuntza, hiruhileko artean, nazioarteko osagaiaren ondorioz gertatu da (+% 13,2), Estatuko fluxua baino ia hamar aldiz gehiago hazi baita (+% 1,7), nahiz eta azken horrek bidaiari guztien % 54,1 osatu. Jarduera horren euskarria urteko lehenengo hiruhilekoan egindako 15.473 hegaldiak izan dira; 2024ko bigarren hiruhilekoan baino 1.053 gehiago.

Aireko garraioa

	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa	% Δ urte artekoa	2025eko I. seihilekoa Δ % urte artekoa
Bidaiariak (kop.)	1.311.092	1.984.896	51,4	6,6	4,3
Hegaldi komertzialak	1.308.437	1.982.351	51,5	6,7	4,3
Estatukoak	815.954	1.072.041	31,4	1,7	0,2
Nazioartekoak	492.483	910.310	84,8	13,2	10,5
Hegaldiak (kop.)	10.739	15.473	44,1	7,3	5,5

bb: behin-behinekoa
Iturria: Aena

Bidaiariak Loiuko aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren araberako sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Hileko banakapenak berresten du hiruhilekoa osatzen duten hilabete guztiek 2024an lortu zirenak baino balio handiagoak erregistratu dituztela, eta atzerriko segmentuan gorakada nabarmena izan dutela. Hala, adierazi beharra dago apirilean Estatuko segmentua ez zela aurreko urteko zifretara iritsi (4.420 bidaiari gutxiago), eta nazioarteko osagaiak konpentsatu zuela galera (29.892 bidaiari gehiago). Gainera, maiatza nabariki igotzeagatik da gailen (+% 10,7 urtetik urtera), Loiuko historian operatutako hegaldi gehien erdietsi baititu (5.498).

Azkenik, lehenengo seihilekoaren balantzeak 2025ean aerodromoak eduki zituen emaitza positiboak berretsi ditu. Hala, bidaiari-bolumena % 4,3 gehitu da, eta 136.072 bidaiari garbi irabazi dira. Hobekuntza hori nazioarteko segmentuaren dinamismoan oinarritu da (+% 10,5), 133.145 bidaiari gehiago ekarri baititu, eta aerodromoaren jardueraren hazkunde diferentziala sostengatzen baitu (lehenengo seihilekoko urte arteko gehikuntzaren % 97,3). Kontrara, Estatuko segmentuaren portaera laua da (+% 0,2), eta 2024ko lehenengo seihilekoan baino 3.676 bidaiari gehiago erregistratu dira.

Benchmarkinga, bidaiariak aireportuetan

	2025.I	2025.IIbb	Δ % urte artekoa	Δ % hiruhileko artekoa	2025eko I. seihilekoa Δ % urte artekoa
Madril	15.522.209	17.153.929	1,7	10,5	3,0
Bartzelona	11.806.741	15.376.691	5,0	30,2	4,2
Valentzia	2.432.842	3.173.201	8,7	30,4	11,1
Sevilla	2.253.939	2.544.870	2,7	12,9	6,0
Zaragoza	140.059	193.798	4,7	38,4	2,1
G-5 metatuta	--	--	4,5	24,5	4,3
BILBO	1.311.092	1.984.896	6,6	51,4	4,3
Gasteiz	50.992	93.586	20,4	83,5	18,6
Donostia	93.279	134.055	-2,8	43,7	0,2
Iruñea	52.480	60.311	3,8	14,9	2,0
G-3 metatuta	--	--	7,1	47,4	5,5
G-9 metatuta	--	--	5,6	35,1	4,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
bb: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

Erreferentziazko aireportuekin egindako konparaketak bigarren hiruhilekoan erregistratutako dinamismoa berresten du, talde horretako hazkunde metatua % 24,5ekoa izan baita. Zaragozako jarduna (+% 38,4), Valentziakoa (+% 30,4) eta Bartzelonakoa (+% 30,2) nabarmentzen dira, jarduera-bolumen izugarria dute-eta aireportuok. Testuinguru horretan, Loiuko hiruhileko arteko irabaziaz aintzat hartu diren erreferentziak gainditzen ditu, Gasteizkoa izan ezik (+% 83,5); izan ere, sasoiaren arabera biziki dihardu aerodromo horrek. Bigarren hiruhilekoko jardunak, urte arteko terminoetan, patroir berari segitzen dio.

Lehenengo seihilekoaren balantzeak Valentziako (+% 11,1) eta Sevillako (+% 6,0) dinamismo erlatibo handiena berresten du, eta Loiuko emaitza (+% 4,3) aztertutako bost aireportuen artean metatutako batez besteko balioan kokatzen du. Inguruko aerodromoei erreparatu, Gasteizko hazkundera nabarmendu behar da (+% 18,6), eta Donostiakoa nahiz Iruñekoa askoz ere lauagoak dira (+% 0,2 eta +% 2,0).

Itsas-garraioa


Bigarren hiruhilekoan, Bilboko portuak 7.276,6 mila tona garraiatu ditu, eta % 24,2ko jaitsiera erregistratu du urtetik urtera: 2020ko laugarren hiruhilekotik (pandemia betean) garraiatutako salgai-bolumen txikiena da. AEBko muga-zergen politikaren inpaktua izan daiteke jaitsiera horren arrazoietakoa bat, eta horri portuko jardueraren merkatu giltzarrien narriadura gehitu behar zaio (petrolioarena, adibidez).

Bilboko portuko salgaien garraioa 2020ko maiataraino jaitsi da.

Salgai motaren arabera, urte arteko balantzea negatiboa da segmentu guztietan, eta gailen da solteko gai likidoen segmentuan egon den atzerakada (-% 34,3), trafiko osoaren % 54,4 izanik. Horri solteko produktu solidoen (-% 3,8) eta salgai orokorren (-% 7,6) jardueraren narriadura gehitzen zaio. Era berean, edukiontzietan garraiatutako merkantziak behera egin du (-% 5,1), bai eta itsasontzien kopuruak (-% 6,8) eta edukiontzien kopuruak ere (-% 1,7).

Horrela, urtean zehar erregistratutako hileko galeraren profilak lehenengo sei hilekoaren balantze bat eraikitzen du: 15.436,2 mila tona kudeatu dira, hots, urte arteko % 14,7ko atzerakada egon da, eta Bilboko portuak urteko lehenengo zatian azken zazpi urteetan lortu duen emaitzarik txarrena da hori.

Salgaiak itsasoz garraiatzea



Iturria: Estatuko portuak.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barneko Produktu Gordina

2025eko lehenengo hiruhilekoan Bizkaiko BPGd-a % 2,1 hazi zen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoaz geroztik jarraitutako hobekuntza-erritmoa finkatu zen. Lurraldeak elkarren ondoko zortzi hiruhileko daramatza urte arteko hazkunde-tasa % 2tik gora edukitzen, nahiz eta aurreko lau hiruhilekoetan baino leunxeagoa izan profila (+% 2,5, +% 2,2, +% 2,0 eta +% 2,3, 2024ko I. eta IV. hiruhilekoen artean), EAErekin komun duen patroia batean.

Bizkaia % 2,1 hazi da 2025eko lehenengo hiruhilekoan


Enpleguak hazten jarraitzen du (+% 1,7) eta 500.084 lanpostura iritsi da (LOB), 2024an (494.849) eta 2008an (494.403) erregistratutako kopuruen gainetik, biak gehieneko erreferentziak direla jakinik. Gauzak horrela, urtean zehar ibilbide horri eutsiz gero, oso litekeena da 2025ean gehieneko historiko berri bat lortzea. Oraingo hori bereziki nabarmena izango litzateke zeren, perspektiban ikusita, Lurraldeak 20.986 lanpostu irabaziko bailituzke 2019aren aldean, pandemia, pandemia ostea eta ziklo inflazionista gaindituta.

Milioi erdi lanpostu baino gehiago (LOB)

Bigarren hiruhilekoko aurrerapen-zifrek³⁰ diote EAEko BPGd-a % 2,2 hazi dela urte arteko tasan, eta % 0,5 hiruhileko arteko tasan. Bestalde, kalkulatu da enpleguaren (LOB) urte arteko gehikuntza % 1,4koa izango dela eta zenbatetsitako irabazi garbia 13.000 lanpostukoa. Oraindik finkatzeko daude emaitza horiek, baina erreferentzia argigarriak dira Bizkaiko.

2025eko bigarren hiruhilekoan, EAEko BPGd-a % 2,2 hazi zen

Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak). Urtarako eta egutegiko efektuak zuzenduta dituzten datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

³⁰ 2025eko uztailaren 16an argitaratu zen.

Industria

Bizkaiko industria-ekoizpena bigarren hiruhilekoan abiatu da (apirila-maiatza, behin-behineko datua), urte arteko beste hobekuntza bat lortu du (+% 5,4, urte arteko tasan). Horrela, lehenengo hiruhilekoan erregistratutakoa sendotu du (+% 5,7), eta 2024ko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean erregistratutako bilakaera negatibotik urrun. Susperraldi hori manufaktura-industriak (+% 5,9) eta erauzketa-industriak (+% 15,1) sortutako emaitzetan oinarritzen da, horiek uraren segmentuaren atzerakada (-% 12,9) konpentsatu baitute (aldakortasun handiko jarduera da).

Industria-jardueraren
gehikuntza berria (+% 5,4)

Industria

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %				
	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I	2025.IIbb
Ekoizpen-tasa	-0,7	-1,3	-0,8	5,7	5,4
Manufaktura-industria	-0,2	-0,5	-1,5	5,2	5,9
Erauzketa-industriak	-26,2	-18,5	3,7	-3,1	15,1
Energia, gasa eta lurruna	-6,4	-13,1	5,0	6,0	2,5
Ura	2,6	-2,1	1,4	6,7	-12,9

Bizkaiko datuak, egutegi-efektua zuzenduta. Oinarria: 2021. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urte arteko aldakuntza. 2025eko bigarren hiruhilekoko behin-behineko datuak, apiriletik maiatzera artekoak.
Iturria: Eustat

Merkatuko zerbitzuak

Zerbitzuen sektorea salmentak gora zihoazela hasi da 2025ean (+% 4,9 eta +% 3,4, prezio korranteetan eta konstanteetan), eta 2024an erregistratu zuen hobekuntza-ibilbideari eutsi dio. Jarduera-segmentu guztiek hobera egin dute, eta azpimarratzekoak dira garraioaren eta biltegiatzearen gorakada (+% 9,0 eta +% 10,4), bai eta jarduera profesionalen eta zientifiko-teknikoena ere (+% 6,6 eta +% 4,6), zeintzuek sektorearen batez besteko balioa gainditzen baitute. Azkenik, sektoreko enplegua egonkortu egin da, eta gutxieneko irabazia izan du urteko lehenengo hiruhilekoan (+% 0,1).

Zerbitzuen sektoreko
salmenten igoera berria
(+% 4,9 eta +% 3,4,
prezio korranteetan eta
konstanteetan)

Merkatuko zerbitzuak

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(prezio korranteak)			(prezio konstanteak)		
	2024.III	2024.IV	2025.I	2024.III	2024.IV	2025.I
Salmentak guztira	2,8	5,9	4,9	0,8	3,4	3,4
Garraioa eta biltegiatzea	1,6	7,9	9,0	-0,2	6,1	10,4
Ostalaritza	4,8	4,8	0,9	3,0	2,7	-1,8
Informazioa eta komunikazioak	1,5	3,8	1,8	-0,3	1,5	-1,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	3,8	5,4	6,6	1,7	2,7	4,6
Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	2,5	8,0	3,0	-0,2	2,8	-0,3
Landunen indizea	0,4	1,1	0,1	--	--	--

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiko ondorioak dituztenak zuzenduta, enpleguari buruzkoei urtaroko efektua kenduta, eta behin-behinekoak uneko urterako.
Iturria: Eustat

Kanpoko merkataritza

Apiril-maiatzeko bihilekoan, Bizkaiko esportazioa 1.298,8 mila tonakoa izan zen (1.990,4 milioi euroko balioa), hau da, % 8,4 eta % 11,2 gutxitu zen, urtetik urtera, hurrenez hurren. Inportatutako kantitate 2.678,2 mila tonakoa izan zen, 2.328,7 milioi euro, eta, ondorioz, % 26,7ko eta % 24,2ko jaitsierak gertatu ziren urtetik urtera.

Bizkaiko esportazioak eta inportazioak nabarmen gutxitu dira

Produktu energetikoak alde batera utzita, esportazio ez-energetikoak 700,2 mila tonakoak izan ziren, 1.656,9 milioi euro, eta urte arteko jaitsierak % 6,6 eta % 8,1 izan ziren, hurrenez hurren. Bestalde, inportazio ez-energetikoak 1.003 mila tonakoak eta 1.484 milioi eurokoak izan dira, eta urte arteko emaitza lauagoa da (+% 0,5 eta -% 4,4).

Esportazio nahiz inportazio ez-energetikoen jaitsieraren bi hileko balantzea ez da bi aldagaien guttizkoan adierazitakoa bezain handia, eta horren arrazoia da esportazio energetikoetan (-% 10,4 eta -% 23,8, bolumenari eta balioari dagokienez) eta, batez ere, inportazio energetikoetan (-% 37,0 eta -% 44,4, bolumenari eta balioari dagokienez) izandako doikuntza itzela.

Esportatutako tonaren batez besteko prezioa (gutxira) balio normalizatuago batera itzuli da (1.533 euro), urtariletik otsailera bitartean balio izugarri altua erregistratu ostean (1.768 euro). Bestalde, inportatutako tonaren prezioa egonkor mantendu da, pixka bat gorantz 2024ko bihileko berarekin alderatuta (841 eurotik 870 eurora). Gainera, jarduera ez-energetikoaren tona esportatuaren batez besteko balioak besteetatik bereizten jarraitzen du (2.366 euro).

Kanpoko merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.


	2024.III	2024.IV	2025.I	2025.II ¹	Δ % urte artekoa	
					2025.I	2025.II ²
Bolumena (milaka tona)						
Esportazioak, guztira	1.862,7	1.651,0	1.547,7	1.298,8	-14,2	-8,4
Esportazio ez-energetikoak	1.070,8	1.011,2	1.045,6	700,2	1,4	-6,6
Inportazioak, guztira	4.265,5	4.411,2	4.266,6	2.678,2	-1,7	-26,7
Inportazio ez-energetikoak	1.301,6	1.258,2	1.408,6	1.003,0	13,0	0,5
Balioa (milioi euro)						
Esportazioak, guztira	2.819,0	2.817,4	2.679,6	1.990,4	-6,6	-11,2
Esportazio ez-energetikoak	2.326,4	2.486,6	2.414,6	1.656,9	2,2	-8,1
Inportazioak, guztira	3.745,5	3.617,6	3.719,2	2.328,7	-3,8	-24,2
Inportazio ez-energetikoak	2.142,4	1.968,5	2.137,8	1.484,0	3,3	-4,4

Bizkaiko datuak. 1. Apiril-maiatzari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko apiril-maiatzaren aldean
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Modu horretan, Bizkaiko kanpoko merkataritzaren saldoa apiriletik maiatzera defizitariora izan da berriro ere (-338,3 milioi euro), baina positiboa da osagai energetikoa kenduta (+172,9 milioi euro). Beste alde batetik, atxikitako grafikoak argi uzten du jarduera ez-energetikoak esportazioen eta inportazioen balioan duen garrantzia (% 83,2 eta % 63,7), bi kasuetan bolumenean ekarpena gainditzen baitu (% 53,9 eta % 37,4, hurrenez hurren).

Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa

■ Esporta. ez-energetikoen %, espo. guztizkoaren gainean ■ Inporta. ez-energetikoen %, inpo. guztizkoaren gainean




Bizkaiko datuak. 2025eko apirilari eta maiatzari dagokien bigarren hiruhilekoko datua, behin-behinekoa.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bizkaiko esportazioen ratioa, BPGd-ari dagokionez, % 21ekoa da 2025eko lehenengo hiruhilekoan; serieko baliorik txikiena azken hamarkadan. Emaita horrek argi uzten du esportazioek izan duten bilakaera (-% 6,6, aztertutako aldia), eta hori ez dator bat Lurraldeko jarduera ekonomikoaren emaitza onarekin (+% 4,3, urtetik urtera, 2025eko lehenengo hiruhilekoan, prezio korrontetean, datu gordinetan).

Aipatzekoa da datu horiek AEBk ezarritako muga-zergen inpaktuagatik izan daitezkeela. Izan ere, herrialde horrek Bizkaiko esportazio eta inportazioen % 7 eta % 9 osatzen du. AEBra esportatzen diren produktu nagusiak erregai mineralak, makinak, indarra sortzeko ekipoak eta gailu elektrikoak dira, eta inportazioak, ordea, erregai mineraletan, hazietan eta fruitu koipetsuetan dautza. Talde horietan, Estatu Batuetako merkatu-kuota % 13koa da.

Esportazioen ratioa BPGd-arekin alderatuta (%).



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)


ENPRESA-JARDUERA

Sozietate berriak

Bigarren hiruhilekoko datuek erakusten dute sozietate berriak pixka bat motelago sortzen ari direla (231 sozietate berri), hiruhilekoen arteko jaitsierarekin bat (-% 11,2), zeinak, sasoiaren arabera dezente bada ere (-% 8,3, -% 5,7 eta -% 4,3, 2022ko, 2023ko eta 2024ko bigarren hiruhilekoei dagokienez), markatuena izan da azkenean. Guztiarekin ere, hobetzeko joera nagusitu da, bigarren hiruhileko honetan urte arteko irabazi berri bat agertu baita (+% 4,5), eta, beraz, hamar hiruhileko positibo etorri dira jarraian (2024ko laugarren hiruhilekoan izan ezik, % 4,9 jaitsi baitzen). Izan ere, lehenengo seiuhilekoaren balantzea 491 sozietate berritan laburtu daiteke, 2024an sortutako sozietate guztien % 57, hori oso ekitaldi positiboa izan zela jakinik.

Bilbok 231 sozietate gehiago ditu, hau da, 491 (2024an sortutakoen % 57)

Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritza-sozietate berriak

	2024.III	2024.IV	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Sozietate berriak	200	212	260	231	-11,2	4,5
Lehen sektorea	0	1	4	1	-75,0	--
Industria eta energia	8	8	12	9	-25,0	-18,2
Eraikuntza	23	29	32	25	-21,9	25,0
Zerbitzuak	169	174	212	196	-11,2	3,2

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Aldi horretan sortutako enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira berriro ere (196 enpresa sortu dira), hau da, sortutako sozietate guztien % 84,8. Zehazki, sozietate gehien sortu dituzten bi jarduerak merkataritza eta konponketak eta ostalaritza dira (31 sozietate berri jarduera bakoitzean), bai eta higiezin alorreko jarduerak (27) eta eraikuntza

alorrekoak (25) ere. Lau jarduera horiek urian sortutako sozietateen ia erdia (% 49,4) osatzen dute.

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2025eko II. hiruhilekoa)

Merkataritza eta konponketak	31
Ostalaritza	31
Higiezin jarduerak	27
Eraikuntza	25

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Guztira 94 sozietate desegin dira, hau da, urte arteko nolabaiteko gehikuntza (+% 27,0 urte arteko tasan), baina hiruhileko arteko murrizketa izugarria (-% 32,4). Horrela, 233 sozietate desegin dira lehenengo sei hilekoan, 2023ko eta 2024ko aldi berean baino 58 eta 25 gehiago, eta 2022ko maila berreskuratu da berriro (233 sozietate desegin dira).

Eta 94 sozietate desegin dira

Saldo garbia (sortutako sozietateak ken desegindakoak) positiboa da eta 139 sozietatez osatuta dago; ekoizpen-sektore guztiek erregistratu dute saldo garbi positiboa, eta zerbitzuen sektorea gailentzen da (110 enpresa). Sozietate gehien desegin zaizkien bi jarduerak jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (18 sozietate) eta merkataritza eta konponketak (18 sozietate) dira, eta, atzetik, higiezin jarduerak (11) eta informazioa eta komunikazioak (10).

Desegindako sozietateak

	2024.III	2024.IV	2025.I	2025.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Desegindako sozietateak	76	110	139	94	-32,4	27,0
Lehen sektorea	0	0	3	0	-100,0	--
Industria eta energia	4	4	10	2	-80,0	-60,0
Eraikuntza	7	9	12	6	-50,0	-33,3
Zerbitzuak	65	97	114	86	-24,6	43,3

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2025eko I. hiruhilekoa)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	18
Merkataritza eta konponketak	18
Higiezin jarduerak	11
Informazioa eta komunikazioak	10

Iturria: Merkataritza Erregistroa

2025eko II. hiruhilekoa

	Adierazleak		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	190,8	6,4	II. hiruh.
Biztanleria landuna (milakotan)**	177,9	9,4	II. hiruh.
Langabetuak (milakotan)**	12,9	-23,2	II. hiruh.
Langabezia-tasa (%)**	6,8	2,6*	II. hiruh.
Erregistratutako langabetuak (pertsona kop.)**	20.443	-2,6	Ekaina
Afiliatuak (kop.)	197.303	1,2	Ekaina
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	28.521	-0,4	II. hiruh.
MERKATARITZA			
Afiliatuak	20.384	-0,6	Ekaina
Kontsumo-prezioak (adierazlea)***	119,8	2,8	Ekaina
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	646.490	13,4	II. hiruh.
Bidaariak (kop.)	336.954	13,4	II. hiruh.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,92	0,07*	II. hiruh.
GARRAIOA			
Salgaiak itsasoz garraiatzea (mila tona)	7.276.678	-24,2	II. hiruh.
Bidaariak airez garraiatzea	1.984.896	6,6	II. hiruh.
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-ekoizpena (indizea)	233,8	5,4	apiril-maiatza
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	231	4,5	II. hiruh.
Desegindako sozietateak (kop.)	94	27,0	II. hiruh.

* Puntu portzentualak.

** Bilbon bizi den populazioa.

*** Bizkaia dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziazko aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria.

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.